

ERRENTAMENDU KONTRATUA	CONTRATO DE ARRENDAMIENTO
.....(e)n,n	En....., a
<p>ALDE BATETIK: jauna/andrea, ALOKABIDE, SA ordezkatzuz. Horretarako eskumena dauka,([e]a)n Gasteizko notario den jaunaren aurrean egiletsitako ahalordetze-eskritura publikoaren arabera.</p>	<p>DE UNA PARTE.: , que interviene en representación de ALOKABIDE S.A, facultado/a para ello en virtud de Escritura Pública de apoderamiento otorgada elante el Notario de Vitoria-Gasteiz, D.....</p>
<p>ETA BESTETIK: adinez helduak,NAN zenbakidunak (hurrenez hurren), eta(e)ko (kalean) helbideratuak; beren izenean eta eskubidean jardunez, eta "Hutsik dagoen Etxebizitzaren Programaren" barnean aukeratutako errentaria den aldetik. Bi alderdiek elkarri onartu diote etxebizitzaren errentamendu-kontratu hau sinatzeko nahikoa lege-ahalmena dutela, eta, xede horri begira, honako aurrekari hauek adierazten dituzte:</p>	<p>Y DE LA OTRA.: mayores de edad, con D.N.I. respectivamente, y con domicilio en actuando en su propio nombre y derecho y en calidad de parte arrendataria seleccionado dentro del "Programa de Vivienda Vacía".</p> <p>Ambas partes se reconocen capacidad legal suficiente para el otorgamiento del presente contrato de arrendamiento de vivienda y a tal efecto exponen los siguientes:</p>
AURREKARIAK	ANTECEDENTES
<p>I. Abenduaren 23ko 466/2013 Dekretuak, "BIZIGUNE" Etxebizitza Hutsen Programa arautzen duenak, BIZIGUNE bitartez zera lortu nahi du, Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan hutsik dauden titulartasun pribatuko etxebizitzak merkatuan sartzea, etxebizitza-premia duten eta BOEen berezko araudiarekin bat eginez onuraduntzat jotzen diren pertsonen mesedetan.</p> <p>Horren ondorioz, ALOKABIDE, SA" kontratu honen eraginpeko etxebizitzaren gaineko gozamen-eskubidearen titularra izango da,..... hileko epean,(e)tik aurrera zenbatzen hasita.</p>	<p>I. El Decreto 466/2013 de 23 de diciembre, por el que se regula el Programa de Vivienda Vacía "BIZIGUNE", pretende conseguir que las viviendas que sean de titularidad privada y que se hallen deshabitadas en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi, sean puestas en el mercado de la vivienda de alquiler en beneficio de aquellas personas que las necesitasen y fuesen calificadas como beneficiarios de acuerdo a la normativa propia de las VPO.</p> <p>A tal efecto, ALOKABIDE, S.A es titular de un derecho de usufructo a su favor, sobre la vivienda objeto del presente contrato, por un plazo de meses a contar desde</p>
<p>II. "BIZIGUNE" Etxebizitza Hutsen Programa arautzen duen abenduaren 23ko 466/2013 Dekretua jauna/andrea aukeratuak izan direla honako etxebizitzan errentamendu-erregimenean hartzeko:</p> <p>Espediente-zenbakia:..... "Kalea:..... (katasstro-erreferentzia....."</p> <p>Deskribapena, banaketa, eta, hala badagokio, altzariak, etxebizitzaren txosten teknikoan jasotakoak dira, espedientera bildu dena.</p> <p>Aurrekoa oinarritzat hartuta, eta bi alderdiak errentamendu-kontratu gauzatzeko prest daudela aintzat hartuta, kontratu hori sinatzeari ekin diote, honako klausula hauen arabera:</p>	<p>II.- Que ".....ha(n) resultado seleccionado/a (s) para ocupar como parte arrendataria en virtud de lo establecido en el Decreto 466/2013 de 23 de diciembre por el que se regula el Programa de Vivienda Vacía "BIZIGUNE"la siguiente vivienda:</p> <p>Nº de expediente: "Vivienda sita en calle cuya referencia catastral es....."</p> <p>La descripción, distribución y en su caso mobiliario es el que consta en el Informe Técnico de la Vivienda obrante en el expediente.</p> <p>Con base a lo anterior y estando interesadas ambas partes en la formalización del arrendamiento lo efectúan con arreglo a las siguientes:</p>
KLAUSULAK	CLÁUSULAS
<p>LEHENENGOA Xedea.</p>	<p>PRIMERA Objeto.</p>

<p>ALOKABIDE, SAK”, kontratu honen eraginpeko etxebizitzaren alokairua kudeatu eta administratzeko sinatutako gozamen- eskubidearen lagapen-kontratua betez, (.....) helbidean kokatutako etxebizitza alokatzen dio, ohiko etxebizitza iraunkor gisa soilik erabiltzeko. Errentariak ezin izango du etxebizitzaren xedea aldatu, ezta etxebizitza horretan etxebizitzaren xedearen berezko jardueraz aparte jarduerarik garatu ere.</p> <p>Halaber, errentariak konpromisoa hartu du ALOKABIDE S.A.ri kontratu honen eraginpeko etxebizitzan erroldatuta egotearen udal-ziurtagiriaren kopia aurkezteko, gehienez hiru hilabeteko epean kontratu hau sinatu den egunetik zenbatzen hasita.</p>	<p>ALOKABIDE, S.A, de conformidad con el contrato de cesión de usufructo suscrito con el objeto de gestionar y administrar el arrendamiento de la vivienda objeto del presente contrato, alquila la vivienda sita en la C/ a para su uso exclusivo como vivienda habitual y permanente. La parte arrendataria no podrá alterar el referido destino de la vivienda ni asimismo desarrollar en la misma cualquier actividad distinta a las propias del destino de vivienda.</p> <p>Asimismo, la parte arrendataria se compromete a entregar a ALOKABIDE, S.A, en el plazo máximo de tres meses a contar desde el día de la fecha del presente contrato, copia del certificado municipal de empadronamiento en la vivienda objeto del presente contrato.</p>
<p><u>BIGARRENA</u> Etxebizitzaren egoera.</p> <p>Etxebizitzaren egoera zehazteko, bi alderdiek aintzat hartuko dute(e)k(e[a])n emandako txosten teknikoaren edukia, espedientera bildu dena; ERRENTARIA eta ALOKABIDE, S.A. guztiz bat datoz txostenaren eduki guztiekin.</p> <p>Txosten horretan etxebizitzaren, instalazioen, altzarien eta etxetresna elektrikoaren egoera orokorra deskribatzen da, baita horiek guztiek etxebizitzaren bizigarritasunerako eskatutako oinarritzko baldintzak zenbateraino betetzen dituzten ere, kontratu honetan adostutako erabilera aintzat hartuta.</p> <p>Aurrekoa gorabehera, ERRENTARIAK adierazi du etxebizitzaren instalazio, altzari eta etxetresna elektrikoak erabilera- eta funtzionamendu-egoera onean daudela eta, hortaz, kontratu honen indarraldian zehar horien erabilera edo mantentze desegokiaren ondorioz gerta litezkeen erreklamazioen erantzule izango dela.</p>	<p><u>SEGUNDA</u> Estado físico de la vivienda</p> <p>Para la determinación del estado físico de la vivienda ambas partes se remiten al contenido del Informe Técnico expedido con fecha por obrante en el expediente, estando la parte arrendataria y ALOKABIDE, S.A. plenamente de acuerdo en el contenido del informe respecto a los términos en él descritos.</p> <p>En dicho informe se describe el estado general de la vivienda, sus instalaciones, mobiliario y electrodomésticos, así como el grado de adecuación de los mismos a los requisitos básicos exigibles para la habitabilidad de la vivienda en virtud del uso convenido en este contrato.</p> <p>Salvando lo anterior, la parte arrendataria declara que las instalaciones, el mobiliario y electrodomésticos de la vivienda se encuentran en buen estado de uso y funcionamiento, por lo que responderá de las reclamaciones que por un mal uso o un inadecuado mantenimiento pudieran producirse en los mismos durante la vigencia del presente contrato.</p>
<p><u>HIRUGARRENA</u> Errentamenduaren epea. Errentariak atzera egitea. Kontratu honek URTEBETEKO iraupena izango du dokumentu hau sinatzen den egunaren hurrengo hilabeteko lehen egunetik zenbatzen hasita. Adostutako iraupen-eparean epemuga iritsita eta Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 indarrean dagoen Legearen 9. artikuluan xedatutakoa betez, kontratua urtetik urtera berrituko da, errentamenduak BOST URTEKO gutxieneko iraupena bete arte, salbu eta errentariak errentatzaileari jakinarazten badio ez duela kontratua berritzeko asmorik, gutxienez kontratua edo kontratuaren edozein luzapen amaitzeko ezarrita dagoen eguna baino hogeita hamar egun lehenago.</p> <p>Dena den, Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 13.2 artikuluan xedaturikoaren arabera, kontratu hau iraungiko da, luzatzeko edo isilbidez luzatzeko aukerarik gabe, ALOKABIDE, SAK etxebizitzaren gainean duen gozamen-eskubidea amaitzen denean.</p>	<p><u>TERCERA</u> Plazo del arrendamiento. Desistimiento por el inquilino. El presente Contrato tendrá una duración de UN (1) AÑO a contar desde el día primero del mes siguiente al de la fecha de suscripción de este documento. Llegada la fecha de vencimiento del plazo de duración pactado y de conformidad con lo dispuesto en el Artículo 9 de la Ley 29/1994 de 24 de Noviembre, de Arrendamientos Urbanos vigente, el contrato se prorrogará por plazos anuales, hasta que el arrendamiento alcance una duración mínima de CINCO AÑOS, salvo que el inquilino manifieste al arrendador con treinta días de antelación como mínimo a la fecha de terminación del contrato o de cualquiera de la prórrogas, su voluntad de no renovarlo.</p> <p>No obstante, y de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 13.2 de la Ley 29/1994, de 24 de noviembre, de Arrendamientos Urbanos, el presente contrato se extinguirá, sin posibilidad de prórroga ó tácita reconducción, al término del derecho de usufructo que ALOKABIDE, S.A ostenta sobre la vivienda.</p>

<p>Beraz, kontratu hau, edonola ere,, iraungiko da.</p> <p>Errentariak errentamendu-kontratuan atzera egin dezake kontratua indarrean sartzen den unetik sei hilabete igarotakoan honen indarraldiko edozein unetan atzera egin dezake, alde zuzenetik idazki bidez ALOKABIDE, SARI jakinarazita, HOGEITA HAMAR EGUNEKO aurrerapenarekin gutxienez.</p> <p>Aurreko paragrafoan adostutakoaren salbuespen gisa, maizterrak errentamendu honen iraupenaren lehenengo urtarokoa igaro baino lehen atzera egiten badu, errentatzaileari indarren den errentaren hileroko bat ordaindu beharko dio, betetzeke geratzen zaion kontratuaren urte bakoitzeko bat, hain zuzen. Aldiak urtebete baino laburragoak badira, kalte-ordainen zati proportzionala izango da.</p> <p>Errentariak kontratua berri nahi ez badu edo kontratuan atzera egin nahi badu, ALOKABIDE, SARI baimena emango dio egon daitezkeen esleipendunekin batera etxebizitza bisita dezan, behar duen guztietan.</p>	<p>Por lo tanto, el presente contrato se extinguirá en todo caso el.....</p> <p>El inquilino podrá desistir del contrato de Arrendamiento, en cualquier momento de su vigencia, una vez que hayan transcurrido al menos 6 meses desde la entrada en vigor del contrato, con el correspondiente preaviso por escrito a ALOKABIDE, S.A con una antelación mínima de TREINTA DIAS.</p> <p>Con carácter de excepción a lo pactado en el párrafo anterior, en caso de que el inquilino desista antes de que transcurra la primera anualidad de duración de este arrendamiento, vendrá obligado a satisfacer al arrendador el importe equivalente a una mensualidad de la renta en vigor por cada año del contrato que reste por cumplir. Los periodos de tiempo inferiores al año darán lugar a la parte proporcional de la indemnización.</p> <p>Tanto en el supuesto de que no exista voluntad de renovar el contrato como en el caso de desistimiento del mismo, el inquilino permitirá a ALOKABIDE, S.A las visitas necesarias a la vivienda con los posibles adjudicatarios.</p>
<p><u>LAUGARRENA</u> Errenta.</p> <p>Errentamendu honengatik honako hileko errenta hau ezarri da:euro.</p> <p>Zenbateko hori alokatzen duen pertsonaren edo bizikidetzaren uniatearen urteko diru-sarrera haztatuak biderkatuz lortu da (zenbateko horiek indarrean dagoen babes ofizialeko etxebizitzaren gaineko araudiari jarraiki kalkulatu dira) - bider %30eko portzentajea, zati 12 hileroko.</p> <p>Errentaren ordainketa, baita kontratu honen zazpigarren klausulan adierazitako kantitateak ere, errentariaren titulartasunpekoak diren banku entitate edo aurrezki kontuetan helbideratuko dira.</p> <p>Horretarako, errentariak berariazko baimena ematen dio errentatzaileari errentariaren entitateari IBANa duen bere kontuan zorduntzeko jarraibideak bidaltzeko, eta entitateari kontuak zorduntzeko egiteko hartzekodunaren jarraibideei jarraiki. SEPA zordunketa zuzeneko helbideratzeko agindu honen erreferentzia zenbakiada.</p> <p>Bere eskubideen zati gisa, legezkotzat jotzen da errentariari haren erakundeak dirua itzul diezaien sinatutako kontratuan jasotako terminoetan eta bertako baldintzak betez. Dirua itzultzeko eskaera kontuan zordun ostean zortzi asteren buruan aurkeztu beharko da. Errentariak zure eskubideen gaineko informazio gehigarria lor dezake zure finantza erakundearekin.</p>	<p><u>CUARTA</u> Renta.</p> <p>La renta mensual que se fija por el presente arrendamiento es de euros.</p> <p>Dicha cantidad se ha obtenido multiplicando los ingresos anuales ponderados de la persona o unidad convivencial arrendataria, calculados con arreglo a la normativa sobre viviendas de protección oficial vigente – por el porcentaje del 30% y dividido en 12 mensualidades.</p> <p>El pago de la renta, y demás cantidades que procedan referidas en la Cláusula Séptima de este contrato, se domiciliará en cuenta en entidades bancarias o de ahorro titularidad de la parte arrendataria.</p> <p>Para este fin, la parte arrendataria autoriza expresamente en este acto a la parte arrendadora a enviar instrucciones a la entidad de la parte arrendataria para adeudar su cuenta con IBANde forma recurrente, y a la entidad para efectuar los adeudos en su cuenta siguiendo las instrucciones del acreedor. El número de referencia de la presente orden de domiciliación de adeudo directo SEPA es.....</p> <p>Como parte de sus derechos, la parte arrendataria esta legitimado al reembolso por su entidad en los términos y condiciones del contrato suscrito con la misma. La solicitud de reembolso deberá efectuarse dentro de las ocho semanas que siguen de adeudo en cuenta. La parte arrendataria puede obtener información adicional sobre sus derechos en su entidad financiera.</p>

<p>Baimen honek balio mugagabea izango du, aldeen berariazko akordioa edo errentariaren jakinarazpen frogagarria ematen ez bada, hilabete naturalaren 25. eguna baino lehen egin behar dena, entitate edo kontu aldaketa jakinaraziz.</p>	<p>Esta autorización tendrá validez indefinida, salvo acuerdo expreso de las partes o comunicación fehaciente de la parte arrendataria, efectuada antes del día 25 de cada mes natural, comunicando el cambio de Entidad o de cuenta.</p>
<p><u>BOSTGARRENA</u> Kontserbazioa.</p> <p>Errentariak bere gain hartzen du etxebizitza, haren edukia, instalazioak eta zerbitzuak behar bezala zaintzea (bereziki elektrizitateari, gasari eta berokuntzari dagokienez, nahitaezko aldizkako azterketak eginez), eta erabilera arruntaren edo errentariak sortutako higaduren ondorioz egin beharreko konponketak haren kontura eta kargura izango dira.</p> <p>Errentariak bere gain hartzen ditu, halaber, ohiko konponketa eta mantentze-konponketa guztiak, baita etxebizitza eta haren edukia erabilera- eta kontserbazio-egoera onean itzultzea ere.</p> <p>Errentariak ahalik eta lasterren jakinaraziko dio ALOKABIDERi, etxebizitza behar bezala kontserbatzeko beharrezkoak izaki, haren ardurapekoak ez diren konponketak egin beharra, eta une oro erraztasunak emango dizkie ALOKABIDERi edo ALOKABIDEk izendatutako teknikariei konponketa-behar hori egiaztatu eta konponketak egin ditzaten, Hiri Errentamenduei buruzko Legearen 21. artikuluan jasotakoari jarraiki.</p>	<p><u>QUINTA</u> Conservación.</p> <p>La parte arrendataria se obliga a conservar diligentemente la vivienda, su contenido, instalaciones y servicios (especialmente las de electricidad, gas, calefacción --con las revisiones periódicas que resulten obligatorias--), siendo de su cuenta y cargo las reparaciones que sean necesarias a tal fin y que se deben realizar como consecuencia del uso normal o de los desgastes generados por el propio parte arrendataria.</p> <p>Igualmente la parte arrendataria se responsabiliza de todas las reparaciones ordinarias y de mantenimiento, así como de la devolución de la vivienda y su contenido en buen estado de uso y conservación.</p> <p>La parte arrendataria deberá poner en conocimiento de la ALOKABIDE en el plazo mas breve posible, la necesidad de hacer las reparaciones que sean necesarias para la adecuada conservación de la vivienda y cuya ejecución no sea de su responsabilidad, debiendo facilitar en todo momento debiendo facilitar en todo momento la verificación y realización de las mismas por la ALOKABIDE o los técnicos que ésta designe, en los términos descritos por el artículo 21 de la LAU.</p>
<p>Seguruak ez ditu estaltzen etxeko animaliek eragindako kalteak; horregatik, debekatuta dago etxebizitzan edo haren eranskinetan animaliak edukitzea, baldin eta komunitatearen elkarbizitzarako, etxebizitzaren kontserbaziorako kaltegarri badira edo etxebizitzan, haren edukian zein komunitate-elementuetan kalteak eragiten badituzte, eta errentaria izango da animalia horiek eragin ditzaketen kalteen erantzulea.</p> <p>Gainera, Jabekideen Komunitateak hartutako erabaki eta konpromiso guztiak onartuko ditu errentariak, eremu komun mantentze- eta kontserbazio-arauei dagokienez eta finkan bizi den aldetik bete behar dituen gainerakoei dagokienez.</p>	<p>Habida cuenta que los daños causados por animales domésticos no son cubiertos por el seguro, queda prohibida la tenencia en la vivienda o sus anejos, de animales que perjudiquen la convivencia comunitaria, la conservación de la vivienda o provoquen desperfectos tanto en la vivienda y su contenido como en los elementos comunitarios, respondiendo la parte arrendataria de los daños que pudieran causar.</p> <p>Asimismo, la parte arrendataria se compromete a aceptar los acuerdos y compromisos adoptados por la Comunidad de Propietarios en cuanto a normas de mantenimiento y conservación de las zonas comunes y de todas aquellas cuestiones que le resulten de aplicación como morador de de la finca.</p>
<p><u>SEIGARRENA</u> Asegurua</p> <p>Errentariak etxeko arriskuatarako aseguru-poliza bat sinatu behar du; polizak etxebizitzaren edukia eta hirugarrenenganako erantzukizun zibila estaliko ditu, gutxienez hamar mila (10.000,00€) euroko balioarekin lehenengoa eta ehun eta berrogeita hamar mila (150.000,00€) eurokoa bigarrena.</p>	<p><u>SEXTA</u> Seguro</p> <p>La parte arrendataria se obliga a suscribir una póliza de seguros de riesgos del hogar que cubra el contenido en la vivienda por un valor mínimo de diez mil (10.000,00€) euros y su responsabilidad civil frente a terceros por valor de al menos ciento cincuenta mil euros (150.000,00€)</p>

<p>Era berean, errentariak ALOKABIDE, S.A.ri egindako poliza horretan asegurudun osagarri gisa agertuko da, azken hau hirugarren gisa mantenduz edozein kasutan.</p> <p>Poliza horren kopia dagokion prima ordaindu izanaren egiaztagiriaren kopiarekin batera ALOKABIDE, S.A.ren bulegoetan aurkeztu beharko dira data honetatik aurrera hilabete bateko epean, baita dagokien berritzeen kopiak ere epe berean, aurrekoen iraungitzetik hasita.</p>	<p>Asimismo, la parte arrendataria incluirá como asegurado adicional en dicha póliza a ALOKABIDE, S.A., manteniendo a esta última en la condición de tercero en cualquier caso.</p> <p>El duplicado de dicha póliza junto con copia del comprobante de haber abonado la prima correspondiente deberán presentarse en las oficinas de ALOKABIDE, S.A. en el plazo de un mes a contar desde esta fecha, así como los duplicados de las correspondientes renovaciones en igual plazo, contando desde el vencimiento de las anteriores.</p>
<p><u>ZAZPIGARRENA</u> Errentariaren konturako gastuak</p> <p>Errentariak bere gain hartuko du etxebizitzaren zerbitzu eta hornidurak —ur beroa eta hotza, elektrizitatea, gasa, berokuntza zentrala, telefonoa eta abar— mantentzearen kostua, baita etorkizunean ezarriko den beste edozein zerbitzuri dagokionez ere. Hornidura eta zerbitzu horiek baja emanda baldin badaude, errentariak ordaindu beharko ditu alta izapidetzearen ondoriozko kostuak.</p> <p>Era berean, etxebizitzaren arabera ezarritako estoldaren, zabor-bilketaren eta parekoen gaineko tasen kostua ere errentariaren kontura izango da, Ondasun Higiezinaren Zergari dagokionez izan ezik.</p> <p>Hornidura horiei dagozkien ordainagiriak errentariak aukeratzen duen eta bere titulartasuneko den kontu korrontean helbideratuko dira.</p> <p>Errentariak berariaz baimena eman dio errentatzaileari etxebizitzari lotutako zerbitzuen enpresa hornitzaileekin beharrezkoak diren kudeaketa guztiak egin ditzan alta emateko edo xede horrekin sinatutako kontratuen titulartasuna aldatzeko.</p>	<p><u>SEPTIMA</u> Gastos de cuenta de la parte arrendataria.</p> <p>Será de cuenta de la parte arrendataria el coste de mantenimiento de todos los servicios y suministros de los que la vivienda está dotada —agua caliente y fría, electricidad, gas, calefacción central, teléfono, etc.- y de cualquier otro que se instale en el futuro. En caso de encontrarse dados de baja dichos suministros y servicios, serán de cuenta de la parte arrendataria los costes de tramitación del alta de los mismos.</p> <p>Igualmente serán de cuenta de la parte arrendataria el coste de las tasas relativas al alcantarillado, recogida de basuras y similares impuestas en razón de la vivienda, excepción hecha del Impuesto de Bienes Inmuebles.</p> <p>Los recibos correspondientes a estos suministros serán domiciliados en la cuenta corriente titularidad de la parte arrendataria que este designe.</p> <p>La parte arrendataria faculta expresamente a la parte arrendadora para llevar a cabo cuantas gestiones sean necesarias, con las compañías suministradoras de los servicios de los que este dotada la vivienda, para proceder al alta, baja o modificación de la titularidad de los contratos suscritos con las mismas a tal fin.</p>
<p><u>ZORTZIGARRENA</u> Obrak. Urteko ikuskatzea</p> <p>Errentariak ezin izango du obrarik egin etxebizitzan errentatzaileak aldez aurretik horretarako esanbidezko baimen idatzia ematen ez badio, eta, baimena lortzen badu ere, obrek ezin izango dute inola ere etxebizitzaren eta eraikinaren egonkortasuna eta segurtasuna arriskuan jarri. Obra horiek guztiak etxebizitzarentzat mesedegarri izango dira kontratua amaitutakoan. Eta hori guztia obra horiek egiteak eskatuko dituen lizentzia eta baimenak bazter utzi gabe.</p>	<p><u>OCTAVA</u> Obras. Inspección anual</p> <p>La parte arrendataria no podrá realizar obras en la vivienda sin el expreso y escrito consentimiento de la parte arrendadora, y aún en el caso de obtenerlo las obras no podrán en ningún caso afectar a la estabilidad y seguridad de la vivienda ni del edificio del que forma parte, y que siempre quedarán en beneficio de la vivienda a la finalización del contrato. Todo ello sin perjuicio de las licencias y autorizaciones que requiera la realización de las mismas.</p>

<p>Errentariak esanbidezko eskumena eman dio errentatzaileari kontratuaren indarraldian egokitzat jo ditzakeen obrak eta konponketak egin ditzan. Errentatzaileak obrak noiz hasiko diren jakinaraziko dio errentariari, obrak hasi baino hamabost egun lehenago.</p> <p>Esanbidez debekatzen da etxebizitzaren sukaldeko edo bainugeletako hormak zulatzea, baita azulejuz edo baldosaz hornituriko beste edozein horma zulatzea ere.</p> <p>Kontratua suntsiarazteko eskumenari utzi gabe, obrak egiteko baimena eman ez duen errentatzaileak honako eskaera hau egin ahal izango dio errentariari kontratua amaitutakoan: gauzak lehengo egoerara itzultzea edo egindako aldaketa gordetzea, inolako kalte-ordainik erreklamatzeko aukerarik eman gabe.</p>	<p>La parte arrendataria faculta expresamente a la parte arrendadora para llevar a cabo durante la vigencia del contrato las obras y reparaciones que estime oportunas, previa comunicación del inicio de las mismas con quince días de antelación a su inicio.</p> <p>Queda expresamente prohibido perforar y/o agujerear las paredes de cocina y cuartos de baño de la vivienda y cualesquiera otras que se encuentren azulejadas o embaldosadas.</p> <p>Sin perjuicio de la facultad de resolver el contrato, la parte arrendadora que no haya autorizado la realización de las obras podrá exigir, al concluir el contrato, que la parte arrendataria reponga las cosas al estado anterior o conservar la modificación efectuada, sin que éste pueda reclamar indemnización alguna.</p>
<p>Obrek eraikinaren egonkortasuna edo etxebizitzaren edo horren osagarrien segurtasuna murriztea eragin badute, errentatzaileak aukera izango du errentariari lehenbailehen gauzak lehengo egoerara itzul ditzan eskatzeko.</p> <p>ALOKABIDE, SAK etxebizitza eta horren eranskinak ikuskatuko ditu, urtean behin edo behin baino gehiagotan, horien erabilera- eta kontserbazio-egoera ikusteko, eta errentariak etxebizitzan eta horren eranskinetan askatasunez sartzen utzi beharko dio ALOKABIDE, S.Ari.</p>	<p>Si las obras han provocado una disminución de la estabilidad de la edificación o de la seguridad de la vivienda o sus accesorios, la parte arrendadora podrá exigir de inmediato de la parte arrendataria la reposición de las cosas al estado anterior.</p> <p>ALOKABIDE, S.A realizará una o varias inspecciones anualmente de la vivienda y sus anejos para observar el estado de uso y conservación en el que se encuentran, debiendo la parte arrendataria permitir a ALOKABIDE, S.A el libre acceso a la vivienda y sus anejos.</p>
<p><u>BEDERATZIGARRENA</u> Lagatzea eta azpierrean ematea.</p> <p>Errentamendua Hutsik dagoen Etxebizitzaren Programan aukeratutako bizikidetz-unitatearen alde soilik ematen dela aintzat hartuta, errentariak ezin izango du ezein kasutan kontratu honen eraginpeko etxebizitza laga edo azpierrean eman, oso-osorik edo partzialki. Ezin izango du utzi, halaber, bere bizikidetz-unitateaz aparte hiru garrenek etxebizitza okupatzea.</p> <p>Kontratu hau laguntza-arlokoa dela aintzat hartuta, aurreko debekua betetzen ez bada kontratua suntsiaraziko da, eta eragindako kalte-galerak erreklamatu dira.</p>	<p><u>NOVENA</u> Cesión y subarriendo.</p> <p>Habida cuenta de que el arrendamiento se concierta con carácter exclusivo y excluyente a favor de la unidad convivencial seleccionada en el Programa de Vivienda Vacía, la parte arrendataria no podrá ceder ni subarrendar, total o parcialmente la vivienda objeto de este contrato en ningún caso. Tampoco permitirá la ocupación a terceras personas ajenas a las que constituyen su unidad convivencial.</p> <p>El incumplimiento de la anterior prohibición, dado el carácter asistencial del presente contrato, dará lugar a la inmediata resolución del mismo y a la reclamación de los daños y perjuicios a que hubiere dado lugar.</p>
<p><u>HAMARGARRENA</u> Lehenatasunez eskuratzeko eskubidea</p> <p>Kontuan hartuta ALOKABIDE errentatzailea dela gozamenen bakarra errentariak ezin ditu baliatu hiri errentamenduen legeko 25. artikuluan jasotako lehenatasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideak eta horiei berariaz uko egiten die.</p>	<p><u>DECIMA</u> Derecho de adquisición preferente</p> <p>Siendo la arrendadora Alokabide S.A., mera usufructuaria de la vivienda, no hay lugar al ejercicio por la parte arrendataria de los derechos de tanteo y retracto recogidos en el artículo 25 de la LAU a los que renuncia expresamente.</p>

HAMAIKAGARRENA Kontratua suntsiaraztea.

Honako hauek dira kontratua suntsiarazteko arrazoiak:

- a) Kontratuaren datatik aurrera kontatzen hasita hilabete bateko epean etxebizitza okupatu ez izana.
- b) Errentariak onuradun izateko eskatutako etxebizitza-gabeziako betebeharra ez betetzea, babes ofizialeko etxebizitzaren araudiaren arabera.
- c) Etxebizitzaren esleipendun gisa izendatutako bizikidetzaren unitatea osatzen dutenez aparteko pertsonak etxebizitza okupatzea.
- d) Errenta ez ordaintzea, edo, hala badagokio, errentariak bere gain hartu dituen edo ordaindu behar dituen kantitateak ez ordaintzea, aurreko zazpigarren klausulan aipatutakoak bereziki.
- e) Fidantzaren zenbatekoa ez ordaintzea.
- f) Azpierrentamendua edo edonolako lagapena, aurreko bederatzigarren klausulan adierazitakoaren arabera.
- g) Finkan kalteak eragitea edo ALOKABIDE, S.A. onartu ez dituen obrak egitea, betiere horren onespena beharrezkoa denean.
- h) Etxebizitza urtean ondoz ondoko bi hilabetez hutsik egotea, edo errentariaren lehen mailako etxebizitza-premia iraukorretara ez bideratzea.
- i) Etxebizitzan, komunitatearen elkarbizitzarako edo etxebizitzaren kontserbaziorako kaltegarri diren etxeko animaliak edukitzea.
- j) Errentan hartutako etxea arretaz erabiltzeko betebeharra ez betetzea, etxebizitza kokatua dagoen eraikineko gainerako auzokoak oztopatuz hainbat ekintzarengatik, hala nola: zarata handia ezorduetan, liskarrak etxebizitzan, auzokoak iraindu eta haiei iseka egitea, kalteak —estetikoak barne— elementu eta instalazio komunetan, hala nola eskailera-buruan, eskaileran, atarian, postontzien eremuan, igogailuan eta abar.
- k) ALOKABIDE, S.A. ez aurkeztea errenta eguneratzeko eskatutako dokumentazioa, eguneratzearen data baino bi hilabete lehenago.
- l) ALOKABIDE, S.A. aurreko bosgarren eta zortzigarren klausuletako baldintzetan, etxebizitza ikuska dezan eragozte.
- m) Hiri Errentamenduei buruzko Legearen 27. artikuluan legez ezarritako gainerako arrazoiak.

UNDECIMA Resolución del contrato.

Son causas de resolución del contrato:

- a) La no ocupación de la vivienda en el plazo de un mes contado desde la fecha del contrato.
- b) Incumplimiento por parte de la parte arrendataria del requisito de carencia de vivienda exigido para ser beneficiario con arreglo de la normativa propia de las viviendas de protección oficial.
- c) La ocupación de la vivienda por personas distintas a las que conforman la unidad convivencial designada como adjudicataria de la vivienda.
- d) La falta de pago de la renta o en su caso de cualquiera de las cantidades cuyo pago haya asumido o corresponda a la parte arrendataria, en especial las señaladas en la cláusula Séptima precedente.
- e) La falta de pago del importe de la fianza.
- f) El subarriendo o la cesión de cualquier clase en los términos señalados en la cláusula novena precedente.
- g) Causar daños en la finca o realizar obras no consentidas por ALOKABIDE, S.A. cuando el consentimiento de ésta sea necesario.
- h) Que la vivienda permanezca deshabitada durante dos meses consecutivos al año, o deje de estar destinada de forma primordial a satisfacer la necesidad primaria y permanente de vivienda de la parte arrendataria.
- i) La tenencia de animales domésticos en la vivienda que perjudiquen la convivencia comunitaria o la conservación de la vivienda.
- j) Incumplir su obligación de usar diligentemente la cosa arrendada, molestando de manera habitual al resto de vecinos del inmueble en el que radique la vivienda por actos como: ruido elevado a horas intempestivas, altercados en la vivienda, insultos y vejaciones a los vecinos, daños, incluidos los estéticos, en elementos e instalaciones comunes tales como descansillos, escalera, portal, buzones, ascensor etc.
- k) La no presentación a ALOKABIDE, S.A. de la documentación adecuada para actualizar la renta, con dos meses de antelación a la fecha de actualización.
- l) Impedir que ALOKABIDE, S.A. realice las inspecciones de la vivienda en los términos de las cláusulas quinta y octavas precedentes.
- m) Las demás causas legalmente establecidas en el art. 27 de la Ley de Arrendamientos Urbanos.

<p>HAMABIGARRENA Fidantza.</p> <p>Kontratu hau sinatzeko ekitaldian, errentariak € (.....) euroko zenbatekoa ordaindu du fidantza gisa, hau da, hileko errentaren zenbateko baliokidea ordaindu du, eta gehenez ere hilabeteko epean itzuliko da fidantza hori errentariak errentatzaileari giltzak entregatuko dizkion egunaz geroztik, eta, errentatzailearen ustetan, errentariak kontratutik eratorritako eta bere gain hartutako akordioak bete ondoren, eta errentariak errentamenduan jasotako zerbitzuei dagozkien faktura guztiak ordaindu ondoren. Fidantza horretatik, eragindako kalteengatiko ordaina kenduko da.</p>	<p>DUODECIMA Fianza.</p> <p>La parte arrendataria entrega en el acto de la firma del presente contrato la cantidad de € (.....), euros en concepto de fianza, equivalente a una mensualidad de renta, la cual será devuelta, en el plazo máximo de un mes desde la entrega de llaves por parte de la parte arrendataria al arrendador, y una vez que se haya cumplido a satisfacción de la parte arrendadora, las estipulaciones dimanantes del mismo, a cuya responsabilidad queda afecta, descontando de la misma cualesquiera desperfectos que se hayan podido producir, y una vez que se hayan abonado por la parte arrendataria todas las facturas correspondientes a servicios recibidos durante el arriendo.</p>
<p>Alderdiek esanbidez adostu dute errentariak ezin izango duela inola ere fidantza gisa ordaindutako dirua baliatu hileko errenta ordaintzeko, ezta errentamendu-kontratu honen berezko beste edozein ordainketatarako ere.</p>	<p>Expresamente pactan las partes que el importe entregado en concepto de fianza no podrá ser utilizado en modo alguno por la parte arrendataria para satisfacer el pago de las mensualidades de renta ni cualquier otro pago inherente al presente contrato de arrendamiento.</p>
<p>HAMAIRUGARRENA Legeria aplikagarria.</p> <p>Kontratu honetan aurreikusi ez den orotan, 1994ko azaroaren 24ko Hiri Errentamenduei buruzko Legean ezarritakoa aplikatuko da, alokairu merkatua malgutu eta sustatzeko ekainaren 4ko 4/2013 Legeak aldatua, baita, osagarri gisa, Kode Zibilean ezarritakoa ere, errentariak aukeratzeko aplikatu beharreko araudia ("Bizigune" Etxebizitza Hutsen Programa arautzen duen abenduaren 23ko 466/2013 Dekretua) eta indarrean dagoen martxoaren 4ko 39/2008 Dekretua alde batera utzi gabe.</p>	<p>DECIMOTERCERA Legislación aplicable.</p> <p>En todo lo no previsto en el presente contrato, será de aplicación, lo dispuesto en la Ley de Arrendamientos Urbanos de 24 de noviembre de 1994, modificada por la Ley 4/2013 de 4 de Junio, de medidas de flexibilización y fomento del mercado de alquiler y supletoriamente en el Código Civil, sin perjuicio de la normativa propia aplicable para la selección de la parte arrendataria (Decreto 466/2013, de 23 de diciembre por el que se regula el Programa de Vivienda Vacía "Bizigune") así como el Decreto 39/2008, de 4 de Marzo vigente.</p>
<p>Kontratu hau sinatzearekin batera, errentariari baja emango zaio berehala Etxebideren eskaera-erregistroan, indarreko araudi aplikagarriak horretarako ezarritakoaren arabera.</p>	<p>La suscripción del presente contrato lleva aparejada para la parte arrendataria la baja inmediata de su solicitud en el registro de Etxebide, siendo modificada en el sentido que la normativa de aplicación en vigor establezca al efecto.</p>
<p>HAMALAU GARRENA Datuak babestea</p> <p>Alde errentariari berariaz jakinarazi zaio kontratu harremanak irauten duen bitartean ematen dizkigun datuak "ARRENDATARIOS" deitutako fitxategian sartuko direla, aurretik Datuen Babeserako Espainiako Agentziari helarazita - ALOKABIDE, S.A. horren arduradun da-, Alokabide S.A. eta errentariaren arteko kontratu harremana egoki mantendu, garatu, bete eta kontrolatzeko, baita ere, lauki hau <input type="checkbox"/> markatzen ez baduzu, ematen dizkizugun zerbitzuak hobetzera zuzendutako asebetetze inkestak egiteko eta posta bidez, mezularitza elektronikoki bidez edota komunikazio elektronikoko beste bideetatik Alokabide edota VISESAko produktu eta zerbitzuei dagokien informazioa eta beste informazio batzuk, informazio buletinak eta interesa izan dezaketen berriak bidaltzeko.</p>	<p>DECIMOCUARTA Protección de datos</p> <p>Se informa expresamente a la parte arrendataria de que los datos personales que nos facilita durante la relación contractual, se incorporan al fichero denominado "ARRENDATARIOS", previamente notificado a la Agencia Española de Protección de Datos, del que es responsable ALOKABIDE, S.A., siendo utilizados para el adecuado mantenimiento, desarrollo, cumplimiento y control de la relación contractual entre ALOKABIDE, S.A. y la parte arrendataria, así como, salvo que marque esta casilla <input type="checkbox"/>, para la realización de encuestas de satisfacción destinadas a mejorar los servicios que le prestamos y enviarle por correo postal, por correo electrónico u otros medios de comunicación electrónica equivalentes información relativa a los productos y servicios de Alokabide y/o VISESA y otras informaciones, boletines informativos y noticias que pudieran resultar de interés.</p>

<p>Era berean, alde errentariari jakinarazten zaio bizikidetzan unitate honek alokairu erregimenean babes sozialeko etxebizitza lortzeko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko beharrezkoa den dokumentazioa eta informazio ekonomikoa pilatzea azkartzeko eta errazteko helburuz eta ordaindu behar dugun alokairu hileroko errenta kalkulatzeko, ALOKABIDE, S.A.ri baimena ematen diogu Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Ogasunetatik eta Gizarte Segurantzako Institutu Nazionaletik, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusitik, Foru Aldundietatik, Udaletatik eta Eusko Jaurlaritzatik adierazitako ondorioetarako beharrezkoa den dokumentazioa lortzeko, eta erakunde hauei eskatutako datu pertsonalak emateko baimena emanaz.</p>	<p>Asimismo se informa a la parte arrendataria de que, a fin de agilizar y facilitar la recopilación de la documentación e información económica necesaria para comprobar el cumplimiento de los requisitos de acceso a vivienda de protección social en régimen de alquiler de esta unidad convivencial y calcular el importe de la renta mensual de arrendamiento que le corresponde abonar, autoriza a ALOKABIDE, S.A. para que recabe de las Haciendas Forales de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa, así como del Instituto Nacional de la Seguridad Social, Tesorería General de Seguridad Social, Diputaciones Forales, Ayuntamientos y Gobierno Vasco la documentación necesaria a los efectos descritos autorizando por tanto a estas Instituciones a que faciliten a los datos personales solicitados.</p>
<p>Era berean, alde errentariari jakinarazten diogu eskaria kudeatzeko eta indarrean dagoen araudia eta herri-administrazio ezberdinekin sinatutako hitzarmenak betez, euren datu pertsonalak etxebizitza gaietan eskumena duen Eusko Jaurlaritzari, herri-administrazioei eta eskumena duten erakunde publiko zein pribatuei jakinaraziak izan daitezkeela, baina soilik helburu horretarako beharrezkoak diren datuak eta etxebizitza babestu bat eskuratzeko baldintza guztiak betetzen dituztela egiaztatzeko. Eskumena duten erakundeak, gutxienez, izango dira Eusko Jaurlaritza, eskumena duten Foru Aldundia eta Udala, Gizarte Zerbitzuak beharrezkoa izatekotan, edo Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusia.</p>	<p>Del mismo modo, se informa a la parte arrendataria de que, en cumplimiento de la legislación vigente y de los Convenios suscritos con las diferentes Administraciones Públicas, sus datos personales podrán ser comunicados al Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de vivienda, Administraciones Públicas, y a los organismos públicos y/o privados competentes, limitándose exclusivamente al tipo de datos que resulten necesarios para tal finalidad así como para verificar el cumplimiento de todas las condiciones y requisitos de acceso a vivienda protegida. Los Organismos competentes serán, al menos, Gobierno Vasco, Diputación Foral y Ayuntamiento competentes, Servicios Sociales, en caso de ser necesario, o Tesorería General de la Seguridad Social.</p>
<p>Era berean, Alokabideren Gizarte Laguntza Unitateak bizikidetzan-unitateari edo kideetako bati laguntzeko beste gizarte errekurtsoekin koordinatzeko beharra ikusi du batzuetan, hori guztia etxebizitzan sartzea eta bertan geratzea sustatzera eta erraztera bideratuta, eta kontratuaren betebeharrak betetzea lagunduz. Egoera hau ematen den kausetarako bakarrik, informatuak izan garela aitortzen dugu eta gure datu pertsonalak udal, autonomiko, foru, osasun, hezkuntza eta antzeko gizarte zerbitzuei eta bizikidetzan-unitateari edota horren kideren bati paragrafo honetan deskribatutako laguntzak eman ahal dioten beste erakunde publiko eta pribatuek, elkarteek eta GKEek ematen dituzten zerbitzuei jakinarazteko baimena ematen dugu. Era berean, Alokabideri zerbitzu, erakunde eta elkarte horietatik horretarako beharrezkoak den guri buruzko informazioa eta datu pertsonalak jasotzeko baimena ematen diogu.</p>	<p>Asimismo, hay situaciones en las que la Unidad de Acompañamiento Social de Alokabide detecta la necesidad de coordinarse con otros recursos sociales de apoyo a la unidad convivencial o a alguno de sus miembros, encaminado todo ello a promover y favorecer el acceso y permanencia en la vivienda y contribuyendo al cumplimiento de las obligaciones del contrato. Únicamente para el supuesto en el que se produzca esta situación, declaramos haber sido informados y prestamos nuestro consentimiento para que nuestros datos personales, sean comunicados a los servicios sociales municipales, autonómicos, forales, sanitarios, educativos y similares así como los que se prestan por otras entidades públicas y privadas, asociaciones y ONGs que puedan prestar a la unidad convivencial o a alguno de sus miembros los apoyos descritos en este mismo párrafo, autorizando igualmente a Alokabide a que recabe de tales servicios, entidades y asociaciones la información y datos personales sobre nosotros que precise para ello.</p>
<p>Alde errentariari jakinarazten zaio kontratu harremana egoki kudeatzeko bere identifikazio datu pertsonalak esleitu zaion etxebizitzaren arriskuak estali edo aseguratzeko poliza sinatzen duen aseguru-etxeei jakinarazteko erabili daitezke; konponketa eta erreforma enpresei (igeltseroak, iturginak, elektrizitatea, etab.) aurrekontu bat egiteko denean eta, hala badagokio, etxebizitza bizigarritasun baldintza egokietan mantentzeko egin beharreko konponketa, erreforma eta egokitze obrak; eta biziko den jabeekideen komunitateari alokatutako etxebizitzaren kontsumoak kudeatzeko eta kontratu harremanak irauten duen bitartean sortu daitezkeen gorabehera posibleak kudeatu eta konpontzeko.</p>	<p>Se informa a la parte arrendataria de que, para la adecuada gestión de la relación contractual, sus datos personales identificativos se podrán comunicar a la/s entidad/es aseguradora/s con las que se suscriba póliza para cubrir o asegurar los riesgos de la vivienda que se le ha adjudicado; a las empresas de reparaciones y reformas (albañilería, fontanería, electricidad, etc) que corresponda con la finalidad de que realicen un presupuesto y, en su caso, lleven a cabo, las obras de reparaciones, reforma y acondicionamiento que sea necesario acometer para la conservación de su vivienda en las debidas condiciones de habitabilidad; y a la Comunidad de propietarios o inquilinos en la que residirá para la gestión de los consumos de la vivienda arrendada así como</p>

	para la gestión y resolución de las posibles incidencias que puedan surgir durante la relación contractual.
<p>Bestalde, altak, bajak edo ur, gas eta elektrizitate horniketa kontratuen aldaketen kudeaketa errentariaren ardura dira. Dena den, jakinarazi zaio, askotan, konpainia hornitzaile batzuk kudeaketa hauek ALOKABIDE, S.A.tik egitea exijitzen dutela, eta kasu horietan zerbitzu hauek egoki eman ahal izateko eta sinatutako alokairua kontratutik sortutako betebeharrei arreta emateko, enpresa horiei beren datu pertsonalak erraztera behartuta egon gaitzezke (behar-beharrezkoak direnak soilik, hala nola, izen-abizenak, NAN, helbidea eta, eskatutako izapideak eskatzen badu, kontu korrontea).</p> <p>Enpresaren fitxategiek, lokalek eta tratamendurako sistemek teknikari eta antolamenduari lotutako segurtasun-neurri beharrezkoak dituzte, DBLOren 9. artikulua eta DBLOren VIII. tituluak eskatzen duten moduan, izaera pertsonaleko datuen segurtasuna bermatzeko eta horiek aldatu, galdu eta baimenik gabe tratatu edo eskuratzea saihesteko.</p> <p>Azkenik, alde errentariari jakinarazi zaio DBLOk datuak eskuratzeko, aldatzeko, ezeztatzeko eta kontra egiteko onartzen duen eskubidea erabili ahalko duzula jakinarazten dizugu, ondorio horietarako ALOKABIDE, S.A.ren helbidera - Gamarrako Atea, 1-A, 2. solairua, - 01013 Gasteiz (Araba)-bidalitako eskaera idatzi eta sinatuaren bidez edo lopd-alokabide@alokabide.eus helbidera posta elektronikoko bat bidaliz, betiere NANaren fotokopiarekin batera. Datuak aldatzekotan, helbide berean jakinarazi beharko duzu eta, hala egin ezean, enpresak ez du erantzukizunik gain hartuko.</p>	<p>Por otro lado, la gestión de las altas, bajas o modificaciones de contratos de suministro de agua, gas y electricidad es responsabilidad de la parte arrendataria. No obstante, se le informa de que, en ocasiones, hay algunas compañías suministradoras que exigen que estas gestiones se realicen desde ALOKABIDE, S.A., en cuyo caso, para poderle prestar adecuadamente esos servicios que nos solicita así como atender las obligaciones derivadas del contrato de arrendamiento suscrito, nos veríamos obligados a facilitar a tales empresas sus datos personales (única y exclusivamente que resulten necesarios como nombre y apellidos, DNI, dirección y, si el trámite que nos solicita lo requiere, número de cuenta).</p> <p>Los ficheros, locales y sistemas de tratamiento de la empresa cuentan con las medidas de seguridad necesarias de índole técnica y organizativa, conforme exige el artículo 9 LOPD y el Título VIII RLOPD para garantizar la seguridad de los datos de carácter personal y eviten su alteración, pérdida, tratamiento o acceso no autorizado.</p> <p>Por último, se informa a la parte arrendataria de que podrá ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición que expresamente reconoce la LOPD mediante solicitud escrita y firmada en el domicilio a estos efectos de ALOKABIDE, S.A., en calle Portal de Gamarra, 1-A, 2ª Planta, – 01013 Vitoria (Álava), o enviando un correo electrónico a lopd-alokabide@alokabide.eus, acompañando en todo caso fotocopia de su DNI. En caso de modificación de sus datos deberá notificarlo en la misma dirección, declinando toda responsabilidad para la empresa en caso de no hacerlo.</p>
<p>HAMABOSTGARRENA Auzitegien eskumendean jartzea</p> <p>Kontratu honen baliozkotasunaren, interpretazioaren, betetzearen edo egikaritzearen inguruan sortzen den edozein desadostasun ebazteko, bi aldeak, dagokien eskumenari esanbidez uko egin ondoren, errentamendu honen eraginpeko etxebizitzari dagozkion Auzitegien eskumenari lotzen zaizkio beren borondatez.</p> <p>Eta aurrekoarekin guztiarekin ados daudela frogatzeko, kontratu honen bi ale sinatu dituzte-(e[a]n).</p>	<p>DECIMOQUINTA Sumisión a los tribunales</p> <p>Con renuncia expresa al fuero que pudiera corresponderles, ambas partes se someten de forma voluntaria al fuero de los Tribunales correspondientes al lugar donde radica la vivienda objeto de este arrendamiento, para la resolución de cualquier discrepancia que pudiera surgir en la validez, interpretación, cumplimiento o ejecución de este contrato.</p> <p>Y en prueba de conformidad, suscriben el presente contrato por duplicado ejemplar en</p>
<p style="text-align: center;">ALOKABIDE SAREN ALDETIK / POR ALOKABIDE</p>	<p style="text-align: center;">ERRENTARIA / LA PARTE ARRENDATARIA</p>